



Pribatutasun Politika

SARRERAK EROSTEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

Sarrerak zerbitzu honen bitartez erosi ahal izateko, ezinbestekoa da eskuratzailerak Baldintza Orokorrak hauek irakurtzea eta berenberegiz onartzea, agiri honetan adierazten diren baldintzek kontratu-izaera baitute. Eskuratzailerak erosle-izaera bereganatzen du eta, hori dela-eta, behartuta dago, ondoren azaltzen diren terminoak eta baldintzak betetzera. Eskuratzailerak sarrerak beste erabiltzaile bati lagatzen badizkio, beraren ardura da azken horrek Baldintza Orokorrak hauek ezagutzea eta betetzea.

Athletic Clubek beretzat atxikitzen du Baldintza Orokorrak hauek edozein unetan aldatzeko eskubidea, bai web orrian ipintzeko edo bai beste web orriren batera lekualdatzeko, baita aplikatu daitekeen beste edozein arauen kasuan ere. Aldaketa hori, dagokion webean argitaratzen denean izango da eraginkorra erosleentzat edo erabiltzaileentzat, hartarako jakinarazpentzat balioko duelarik.

1.- Kontratuaren atalak

www.athletic-club.com web orria ATHLETIC CLUBena da; klub horrek, zeinen IFK G-48/074.264 baita, Bilbon, Mazarredo zumarkaleko 23an, Ibaigane jauregian, du bere sozietate-egoitza, Elkarteen Erregistroan inskribaturik dagoela, 617 zenbakiarekin, eta haren bidez ahalbidetzen du sarrerak erostea Klubaren taldeek parte hartzen duten jardueretarako. Edozein galdera, azalpen edo erreklamazio egiteko, Klubaren, hau da, saltzailearen, bulegora zuzendu daiteke, honako hauen bitartez:

Posta-helbidea:

Athletic Club

Mazarredo zumarkalea, 23

48009 Bilbo

Telefona: 94 424 08 77

Posta elektronikoa: webmaster@athletic-club.net

Erosketa formalizatzeak dakar, eskatzen diren datuak eskuratzailerak egokiro betetzea, behartuta egonik hirugarrenen baten daturik ez sartzera. Eskuratzaileraren erantzukizuna da sartzeko diren datuak baliokoak eta benetakoak izatea eta, hala egin ezean, sorrarazten diren ondorioak, kalteak eta galerak ere bai. Web orrian ezarritako formularioa eta prozedurak betetakoan, formalizatutzat joko da eskuratzaileri egin zaion sarrera-salmenta.

2.- Partida bera eta sarrera-aukeraketa.-



Partida zein egunetan eta zein ordutan jokatu den web orrian adieraziko da. Hala ere, antolatzaileak haren eguna eta ordua alda ditzake, edo, kasua bada, Klubak berak alde bakarreko erabakiz, eta sarrera eskuratzen duenari dagokio haiek egiaztatzea partida jokatu aurretik.

Sarrera-erosketa egiteko prozesua betetakoan, gero ezin izango da erosketa deuseztatu, ezta aldatzeko eskatu ere; beraz, eskuratzailarena berarena da, hura onartu aurretik prezioa eta aukeratutako sarreren zenbakia eta jesarlekuen kokapena behar bezala egiaztatzeko ardura.

Sarrera erosteko prozesuak, erosketa bera formalizatu baino lehen ahalbidetzen du sarrerari Estadioan dagokion jesarlekuaren kokapena ikustea, bai halaber, datxezkion baldintzatzaileak; hortaz, bada, partida jokatu bitartean nahiz ostean ez da onartuko alde aurreko erreklamaziorik aukeratutako jesarlekuaren gaineko egokitasunean, ezaugarrietan edo mugetan oinarritutakorik. Ondorio horiez denaz bezainbatean, eroslearen ardura da partidara joango direnen edo sarrera-erabiltzaileen baldintzen arabera (adina, garaiera...) jesarlekuak egokiak diren egiaztatzea.

Klubak ez du erantzukizunik beste bitarteko edo bide batzuez erositako prezioen aldean gerta litezkeen diferentziengatik.

Klubak ez du erantzukizunik web orrira sartzean edo horren funtzionamenduan gerta litezkeen huts edo gorabeherengatik.

Eroslearen ardura da egindako aukera egiaztatzea. Sarrerak erosteko prozedura formalizatutakoan, ez da haien ordezkapenik egingo, ez ezarritako zenbatekoa, osorik zein zati bat, itzuliko, nahiz eta sarrera-erosleak edo haien erabiltzaileek partidara joaterik izan ez, ezta ere hark hutsen bat egin duenean sarrera erostean.

3.- Sarreren baliozkotasuna, erabilera eta bikoiztasuna.-

Klubaren taldeen partidetara joateko erosten diren sarrerek elementu batzuk dituzte beraien baliozkotasuna eta benetakotasuna bermatzeko. Klubak beretzat atxikitzen du, kalteak dituen sarrera edo faltsifikatua izanaren seinaleduna erakusten duen pertsonari Estadiora sartzeara eragozteko eskubidea. Azken kasu horretan Klubak legezko akzio egokiak hasi ditzake. Athletic Clubek ez du erantzukizunik, web honetan edo salmenta-puntu ofizialetan erosi ez diren sarreren kasuan.

Eroslearen ardura da sarrera harik eta Estadiora sartzeko unera arte zaintzea, bere gain hartzen duela erantzukizun guztia hura galdu, suntsitu, narriatu, lapurtu, desagertu, bikoiztu, faltsifikatu... den kasuetan. Horrelako kasuetan ondorioa izango da, besteak beste, jatorrizko sarrerak Estadiora sartzeko ematen dituen eskubideak galtzea. Aipatu kasuetan ez da sarrera berriz emango.

Sarrera honen eroslea zarenez, zeurea bakarrik da haren kopiarik inork ere ezin egitea bermatzeko ardura. Birritan inprimatua izan dela gertatuz gero, Estadiora sartzeko lehenen erabilitakoak eragotzi egingo du ondoren beste kopia batekin sartzeara.



Debekatuta dago sarreraren birsalmenta, zein haiek zenbatekorik ordaindu edo itzuli gabe baliogabetzeko kausa izan baitaiteke.

Baita debekaturik dago ere, sarrerak marketina nahiz publizitatea egiteko erabiltzea (zozketak, lehiaketak, sustapenak...) Klubaren berariazko eta alde zuzeneko baimenik gabe. Hori ez betetzeak Kluba legitimatuko du sarrerak baliogabetzeko eta legezko akzio egokiak hasteko.

Aurrekoaren kalterik gabe, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko Arautegia onesten duen otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuko 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hurrengo baldintza hauek izango dira aplikagarri sarrerak erabiltzeko baldintzei dagokienez:

17. artikulua. Sarrera-txartelari dagokionez, ikusleek dituzten betebeharrak:

1. Kirol-esparruren batera sartu nahi duen pertsona orok sarrera-txartel bat eraman beharko du, dela banaka saldua, dela askotarako txartela, dela abonua, edo dela interesatuei ikuskizun batera edo bat baino gehiagora sartzeko baimentzen dien beste edozein txartel.
2. Ikusleek hartu behar dituzten jarleku mota eta jesarlekuek, beraiek daramatzaten sarrera-txartelei dagokienak izan behar dute.
3. Ikusle bakoitzak aldean atxiki behar du bere sarrera-txartela harik eta kirol-esparrua utzi arte, eta erakutsi egin beharko du antolatzailearen edozein enplegatu edo laguntzailek nahiz Estatuaren Segurtasun Indar eta Gorputzek eskatzen diotenean.
4. Hala egiteko eskatu zaiolarik, ikusleren batek sarrera-txartela erakutsi ez baleza, halako bat erosi beharko du txarteldegian, baldin eta geratzen bada, eta dagokion prezioa ordainduta. Bestela, berehala utzi beharko du kirol-esparrua.

4.- Kirol-esparrura sartzeko eta bertan egoteko baldintzak

Sarrera erosten duenaren erantzukizuna izango da haren azken erabiltzaileak, behin Estadio barruan dagoela, portaera egokia izatea, eta bere gain hartzen ditu azken erabiltzaile hori txarto portatzearen ondorioak.

Era berean, sarrera daukana, kirol-ikuskizunetan indarkeria prebenitzeari buruz indarrean dagoen legeriari atxikita dago, bereziki uztailaren 11ko 19/2007 Legeko 6. artikuluari, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren kontrakoa berori, zeinek hurrengo hau adierazten baitu:

Kirol-lehiaketa eta -ikuskizunetako ikusleen eta bertaratuen betebeharrak

6. artikulua. Kirol-esparrura sartzeko baldintzak.

1. Debekatuta dago:

- a) Edozein motatako armak edo horien ondorio berak eragin ahal dituzten gauzakiak sartzeko, eramatea edo erabiltzea, baita bengalak, petardoak, lehergaiak eta, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak nahiz korrosiboak ere.
- b) Indarkeriara bultzatzen duten mezudun pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk sartzeko, erakusteko nahiz prestatzeko, edo baita ere haiek pertsona eta pertsona-talderen bat bere arraza-nahiz etnia-



jatorriagatik, erlijioagatik zein iritziengatik edo bere minusbaliotasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik mehatxaturik, iraindurik edo laidoztaturik sentiarazten dutenean.

c) 2. artikulua lehenengo eta bigarren ataletan indarkeriazkotzat, arrazistatzat, xenofobotzat edo intolerantetzat jotzen diren jokabideak izatea.

d) Kirol-esparrura edari alkoholduen, droga toxikoen, estupefazianteen edo sustantzia psikotropikoen eraginpean sartzea.

e) Kirol-esparrura sartzea horrexetarako balioko txartelik gabe.

f) Arautegian xedatzen den beste edozein portaera, beti ere horrek portaera indarkeriazkoak, arrazistak, xenofoboak edo intoleranteak sustatzen lagundu badezake.

2. Kirol-lehiaketa eta -ikusketak ikusleak eta bertaratuak hartarako ipinitako kontrolen pean jarri behar dira, aurreko atalean adierazitako baldintzak egiaztatzeko, eta bereziki:

a) Telebista-zirkuitu itxiz grabatuak izateko bai kirol-esparruaren inguruetan, bai haren sarbideetan eta bai barruan.

b) Aurreko ataleko a) eta b) puntuetan jasotako betebeharrak egiaztatzearen egiten diren miaketa pertsonalak onartzea.

3. Sartzea eragotziko zaio aurreko atalean adierazitako portaeretako bat duen edozein pertsonari, bere jarrera oneratzeko ez duen artean, edo kanporatua izateko zioen baten pean erori bada.

Athletic Clubek sartzea ukatzeko eskubidea du eta, aurrekoaren arabera, ikusleei kirol-esparrura sartzea eragotzi diezaieke, edari alkoholduen, armak, hala balira lez erabili daitezkeen gauzakiak, eta bengalak zein antzekoak sartzeagatik, edo edari alkoholduen, droga toxikoen, estupefazianteen edo sustantzia psikotropikoen eraginpean daudenei. Zehazki, lehen aipatutako 203/2010 Errege Dekretuko 20.2. artikulua ezarritakoari jarraiki, jasota geratzen da kirol-esparrua bideoz zaindutako eremu bat dela, norgehiagoka ikustera bertaratuen eta parte-hartzaileen segurtasunerako, eta kirol-esparrura sartzea eta han egotea debekatuko zaiela, gutxienez, honako zio hauengatik:

a) Liskar, istilu, borroka nahiz desordena publikoetan parte hartzea.

b) Honako hauek sartzea, eramatea edo erabiltzea: armak, edozein motatakoak, nahiz haien ondorio berak eragin ahal dituzten gauzakiak, hala nola, ziztatzaileak, ebakitzailak, edo 500 gramo/mililitrotik gorakoak, jaurtigai gisa erabili ahal direnak, hala nola, ontzi zurrunetan sartutako janariak, edari botilaratuak edo potoetan daudela.

c) Bengalak, petardoak, lehergaiak edo, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak edo korrosiboak eta gailu piroteknikoak sartzea edo edukitzea.

d) Edari alkoholduen, estupefazianteen, psikotropikoen estimulatuzaileen edo antzeko sustantzien eraginpean egotea.

e) Edozein motatako edari alkoholduen sartzea edo saltzea, bai halaber sustantzia estupefazianteak, psikotropikoak edo antzekoak.

f) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten mezudun pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk sartzea, erakustea nahiz prestatzea, bai halaber, aipatu mezuak direla-eta, pertsona eta pertsona-talderen bat bere arraza- nahiz etnia-jatorriagatik,

erlijioagatik zein iritziengatik, bere minusbaliotasunagatik, adinagatik sexuagatik edo sexu-joeragatik mehatxaturik, iraindurik edo laidoztaturik sentiarazten dituztenak.



g) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten abestiak, adierazpenak nahiz soinuak ematea edo haietarako jarrerak izatea, edo pertsona nahiz pertsona-talderen bat bere arraza zein etniagatik, minusbaliotasunagatik, erlijioagatik, iritziengatik, sexuagatik edo sexu-joeragatik, laidoztatu asmo dutenak.

h) Jokalekuan sartzea.

i) Edozein kirol-esparrutara sartzeko debekuarekin zehatua izana, zehapena bera iraungitzen ez den bitartean.

Eta ildo berean, kirol-esparruan egoteko baldintzak lehen aipatutako 19/2007 Legean ezarritakoak izango dira, eta bereziki:

7. artikulua. Kirol-esparruan egoteko baldintzak.

1. Kirol-norgehiagoketan Ikusleak kirol-esparruan egon ahal izateko baldintzak dira indarkeriazko ekintzak ez egitea, ez arrazistak, ez xenofoboak, ez intoleranteak, ez haietara bultzatzen dutenak, Lege honexetako lehenengo eta bigarren ataletan definitutakoaren arabera; bereziki:

a) Inor ez jotzea, ez ordena publikoa asaldatzea..

b) Ez ematea abesti, soinu edo kontsigna arrazistak edo xenofoboak, ez intolerantziazkoak, ez indarkeriara edo terrorismora bultzatzen dutenak, ez Konstituzioaren beste edozein urraketa dakartenak.

c)) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk ez erakustea, ezta ere mezu arrazista, xenofobo edo intoleranteak dituztenak.

d) Ezelako gauzakirik ez botatzea.

e) Jokalekuan baimen barik ez sartzea.

f) Kirol-ikuskizunak egiten edo garatzen ari diren instalazioetan edo esparruetan ezelako armarik edo ondorio berak eragin ahal dituen gauzakirik ez edukitzea, ez aktibatzea edo ez jaurtitzea, ezta bengalarik, petardorik, lehergairik ez, oro har, produktu sukoirik, ke-sortzailerik ez korrosiborik ere.

g) Bere garaian aurreikusitako segurtasun-baldintzak eta arautegiaz xedatzen direnak betetzea.

2. Era berean, hurrengo hauek dira, ikusleak kirol-esparruan egon ahal izateko baldintzak:

a) Ez hartzea alkoholdun edaririk, droga toxikorik, estupefazienterik, ez sustantzia psikotropikorik.

b) Norberak kirol-esparruan sartzeko duen txartelari dagozkion jarleku mota eta jesarlekua hartzea, baita ere txartel hori erakustea segurtasun-gorputz eta -indarrek eta antolatzailearen edozein enplegatuk edo laguntzailek eskatutakoan.

c) Kirol-esparruaren barne arautegiak betetzea.

3. Aurreko ataletan adierazitako betebeharrak ez betetzeak segurtasun-indarrek kirol-esparrutik kanporatzea ekarriko du, ondoren kasu batzuetan ezarri dakizkiokeen zehapenen kalterik gabe.

4. Kirol-lehiaketa eta -ikuskizunetako ikusle bertaratuek baketsuki utzi beharko dute kirol-esparrua eta horren inguruetatik ere alde egin, hala eskatu zaienean segurtasun-zioengatik zein lehenengo atalean aipatzen diren egoteko baldintzak ez betetzeagatik..

Norbaitek Estadiotik irtenez gero, ez zaio utziko berriro bertara sartzen, ezta sarrera berriro erakutsita ere. Klubak beretzat atxikitzen ditu partidaren irudi-eskubideak eta jabetza intelektualekoak. Estadiora sartzen diren pertsonak baimena ematen dute ikuslegoaren parte gisa grabatuak izateko, eta Athletic Clubi lagatzen diote euren irudia doan eta ondorio guztietarako.



Klubak berenberegiz emandako baimenik gabe erabat debekaturik dago partidaren argazkiak egitea, hura filmatzea edo grabatzea, eta halaber, laser-erakusleekin edo antzekoekin sartzeari, baita animaliak sartzeari ere, Klubak baimendutakoak (itsu-txakurrak) izan ezik.

5.- Pribatutasun-politika.-

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, ezarritakoari jarraiki, jakinarazitako datu pertsonalak fitxategi automatiko batean sartuko dira sarrera-salmenta kudeatzea eta partida jokatu arte haien jarraipena egitea xede, baita eroslea informatzeko edukitzeko ere, zeinahi bitartez, elektronikoak barne, Klubak berak garrantzitsuak deritzen informazioen eta jakinarazpenen gainean; fitxategi horren titularra Athletic Club bera da. Hala eta guztiz ere, erosleak uko egin diezaioke merkataritza-informazioko aukera horri, erosketa-prozeduran hartarako ipinitako laukiaren bidez adieraziz.

Sarrera-salmentaren eragiketa egiteko datuak hiru hilabetean gordeko dira, gertakaria gauzatzen den egunetik kontatzen hasita; horren guztiaren helburu bakarra da haren gainean egon daitezkeen gorabeherari, erreklamazioei edo argitu beharrekoei erantzutea. Aipatu epea igarotakoan, datuak artxibatu eta gorde egingo dira estatistika eta merkataritza kontuetarako.

Athletic Clubek baditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurri teknikoak eta antolazkoak, zeintzuek haiek aldatzea, galtzea, tratatuak izatea edo baimenik gabe beraietara sartzeari ekiditen baitituzte, horretara bete egiten duela bai LOPDaren 9. artikuluan eta bai ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen Segurtasun Neurriari buruzko Arautegia onartzen duenean, xedatutakoa.

Datuetan sartzeko, beroriek zuzentzeko, deuseztatzeko eta tratatuak izateari aurka egiteko dituzun eskubideak baliatu ditzakezu, Athletic Clubi zuzendutako idazki baten bitartez, berori bidaliz edo Mazarredo zumarkalea, 23, 48009 - Bilbo helbidera, edo posta elektronikoko webmaster@athletic-club.net helbidera, eta harekin batera Nortasun Agiri Nazionalaren kopia bat edo identifikatzen zaituen agiriren bat.